



## **ERABILTZAILEAREN GIDA - EUSKADIKO EKOIZPEN INTEGRATUKO OPERADOREEN ERREGISTROA**

### **Lege-oinarria**

Euskadiko Ekoizpen Integratuko Operadoreen Erregistroa Ekoizpen Integratuari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren bidez sortu zen. Hona erregistroaren egitekoa: Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen-azalera izanik, ekoizpen integratuaren arauak betetzen dituzten ekoizleak inskribatzea; orobat, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazioak izanik, esandako tekniken bitartez ateratako produktuak manipulatu eta/edo lantzen dituzten enpresen titularrak inskribatzea. Betiere, ekoizleek edo enpresa-titularrek eskatuta.

Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko abuztuaren 6ko Agindua argitaratzen da, Euskadiko Ekoizpen Integratuko Operadoreen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua ezartzeko eta sistemari atxikitako operadoreen inskripzio-prozedura arautzeko. Agindu horretan ezartzen da inskripzioa egin beharra (4. artikulua), izena emateko epea (5. artikulua), izena emateko prozedura (6. artikulua), inskripzio-ziurtagiria (7. artikulua), erregistroko datuen aldaketa (8. artikulua) eta inskripzioa ezereztea (9. artikulua).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua, administrazio publikoekin elektronikoki harremanak izateko eskubideari eta betebeharrari buruzkoak, hau adierazten du: (1. puntua) Pertsona fisikoek une oro aukeratu ahal izango dute administrazio publikoekin komunikatzen diren, beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez baliatzeko edo ez, salbu eta administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta badaude. Pertsonak herri-administrazioekin komunikatzeko aukeratzen duen bitartekoa edozein unetan aldatu ahal izango du hark. (2. puntua) Nolanahi ere, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko, gutxienez honako subjektu hauek behartuta egongo dira herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera:

- a) Pertsona juridikoak.
- b) Nortasun juridikorik gabeko erakundeak.
- c) Elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesionala egiten dutenak, jarduera profesional hori gauzatzean administrazio publikoekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako. Nolanahi ere, kolektibo horren barruan sartzen dira notarioak eta jabetza-erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
- d) Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
- e) Administrazio publikoetako langileak, enplegatu publiko izateagatik administrazio horiekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamendu bidez zehazten duen moduan.

Era berean, erregelamenduz (3. puntua), administrazioek haiekin harremanetan jartzeko betebeharra ezarri ahal izango dute, bitarteko elektronikoen bidez, zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen kolektibo jakin batzuetarako, baldin eta, gaitasun ekonomikoa, teknikoa, dedikazio profesionala edo beste arrazoi batzuk direla-eta, beharrezko bitarteko elektronikoak eskuragarri dituztela egiaztatzen badute.

Herri Administrazioekin elektronikoki harremanetan jartzeko eskubide eta/edo betebeharrak hori betetzeko, Ekoizpen Integratuaren eremuan, Internet bidezko prozedura elektronikoa bat jarri da abian, honako izapide hauekin: inskripzioa, datuen aldaketa, Erregistroan baja ematea eta Erregistroko inskripzio-ziurtagiria ematea. Izapide horiek Eusko Jaurlaritzaren webguneko helbide elektronikoa honetan daude: <https://www.euskadi.eus/erregistroa/ekoizpen-integratuaren-erregistroa/web01-a2elikal/eu/>

### Informazio orokorra

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Kalitate eta Sustapenerako Zuzendaritzari atxikita dago Ekoizpen Integratuaren Erregistroa (2002ko abuztuaren 6ko Aginduaren 3.1 artikulua), eta bera da erregistro hori kudeatzeaz eta, beraz, prozedura elektronikoa horiek kudeatzeaz arduratzen dena.

Izapidetze elektronikoa hasi aurretik:

- Kontuan izan **identifikazio elektronikorako bitarteko bat** izan behar duzula (2012ko ekainaren 27ko Aginduan ezarritakoak).
- Prestatu beharrezko dokumentazioa **formatu digitalean**.

Gero, sartu zerbitzu elektronikoa, eta jarraitu adierazitako urratsei (izapidean sartzen zarenean, sistemak gidatuko zaitu):

1. Identifika bedi.
2. Bete eskabidearen inprimakia (\*).
3. Erantsi aurretik prestatu dituzun dokumentuak.
4. Eskabidea sinatu eta bidali.

(\*) Ez da beharrezkoa formularioa saio bakar batean betetzea, sinatzea eta bidaltzea; aitzitik, nahi izanez gero, Administrazioaren sistema informatikoa gorde dezakezu, eta prozesuarekin jarraitu ondoz ondoko saioetan.

Behin bidalita, mezu bat agertuko da, "eskaera behar bezala egin da" dioena. Erregistro-egiaztagiria (hartu-agiria) eta eskaera deskargatzeko aukera ematen da, baita espedientearen jarraipena egiteko "nire karpeta" sartzeko aukera ere.

Geroago, izapideekin jarraitu ahal izango duzu eta zure espedientearen jarraipena egin ahal izango duzu **"Nire karpeta"** bidez. Identifikatu egin beharko duzu "Nire karpeta" n sartzeko eta kontsultatu nahi duzun espedientea bilatzeko.

Elektronikoki egin daitezkeen Ekoizpen Integratuko Erregistroaren izapideak hauek dira:

- I. Erregistroan inskribatzea (kodea: 0115201).
- II. Datuak aldatzea (kodea: 0115202).
- III. Erregistroan baja ematea (kodea: 0115203).
- IV. Erregistroaren ziurtagiria ematea (kodea: 0115204).

**I. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekoizpen Integratuaren Erregistroan inskribatzea**  
**(kodea: 0115201)**

Izapide horren bidez, operadoreak bere jardueraren berri ematen du, baita ekoizpen integratuko sistemari heldu nahi diola ere. 4 urrats daude: "identifikatu", "datuak bete", "dokumentuak erantsi", "sinatu eta bidali".

**1. Identifikatzea:**

Bitarteko elektroniko baimendu baten bidez identifikatu behar da. Identifikatu ondoren, inprimakia hasten da:

"Datu pertsonalak" koadroan, hau adierazi beharko da:

- Espedientearen pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten badu: eskaera egiten duen pertsonaren ziurtagiri elektroniko batekin identifikatzen da, eta datuak automatikoki agertuko dira pantailan.
  - Pertsona edo erakunde interesdunaren ordezkari gisa jarduten badu: eskabidea egin nahi duena ordezkatzeko duen pertsona gisa identifikatzen da. Kasu horretan, pantailan izapidea egiten ari denaren datu pertsonalak agertuko dira, eta inskripzio-eskaera egin nahi duen pertsona/erakunde ordezkatuaren datuak aurkeztu beharko ditu.
- Ordezkaritza behar bezala egiaztatu behar da dokumentazioaren bidez, eta justifikazio-dokumentua prozesua amaitzean erantsi beharko da (3. urratsean dokumentuak bildu). Ordezkaritza hori ohiko moduan erabiliko baduzu, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan alta ematea gomendatzen dizugu, hurrengo espedienteetan izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko baititu datuak.

Datu pertsonalak eta jakinarazpenekoak berretsi eta/edo bete behar dituzu.

**2. Datuak bete:**

Markatu hiru aukeretako bat erregistroan inskribatzeko moduaren arabera:

- Ekoizleak
- Ekoizleen elkarteak
- Manipulatzailerak eta/edo elaboratzaileak

Sartu atal bakoitzean eskatzen diren datuak:

- Eskaeraren datuak
- Arduradun teknikoa.
- Ustiategiaren/multzoaren/manipulazio-lokalen datuak.
- Erantzukizunpeko adierazpena: markatu egin behar duzu aurrera jarraitzeko.

**3. Dokumentuak eranstea:**

Eskatutako dokumentu motak edo bestelakoak sartu ahal izango dituzu, dagokion motan "erantsi"

sakatuz  Erantsi .

Ordezkarari gisa jardunez gero, eta ordezkari-tza-ahalorde hori EAEko Ahalordetzeen Erregistroan inskribatuta ez badago, ez ahaztu ordezkari-tza-egiaztagiria eranstea.

4. Sinatu eta bidali:

Aurreko urratsetan jarri den informazioa erakusten da.

Sartutako datuak eta aurkeztutako dokumentuak zuzenak direla egiaztatu behar duzu. Baiezkoa bada, sakatu sinatu eta bidali.

## II. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekoizpen Integratuaren Erregistroko datuak aldatzea (kodea: 0115202).

Izapide horren bidez, operadoreak aldatu eta eguneratu egin ditzake ekoizpen integratuko erregistroan dauden datuak. 4 urrats daude: "identifikatu", "datuak bete", "dokumentuak erantsi", "sinatu eta bidali".

### 1. Identifikatzea:

Bitarteko elektronikoa baimendu baten bidez identifikatu behar da. Identifikatu ondoren, inprimakia hasten da:

"Datu pertsonalak" koadroan, hau adierazi beharko da:

- Espedientearen pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten badu: erregistroan aldaketa egiten duen pertsonaren ziurtagiri elektronikoa batekin identifikatzen da. Datuak automatikoki aterako dira pantailan.
- Pertsona edo erakunde interesdunaren ordezkari gisa jarduten badu: aldaketa egin nahi duena ordezkatzeko duen pertsona gisa identifikatzen da. Kasu horretan, pantailan izapidea egiten ari denaren (ordezkariaren) datu pertsonalak agertuko dira, eta aldaketa egin nahi duen pertsona/erakunde ordezkatuaren datuak aurkeztu beharko ditu.

Ordezkaritza behar bezala egiaztatu behar da dokumentazioaren bidez, eta justifikazio-dokumentua prozesua amaitzean erantsi beharko da (3. urratsean dokumentuak bildu).

Ordezkaritza hori ohiko moduan erabiliko baduzu, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa alda ematea gomendatzen dizugu, hurrengo espedienteetan izapide telematikoa modu automatizatuan lortuko baititu datuak.

Datu pertsonalak eta jakinarazpenekoak berretsi eta/edo bete behar dituzu.

### 2. Datuak bete:

Markatu hiru aukeretako bat, interesduna erregistroan nola inskribatuta dagoen kontuan hartuta:

- Ekoizleak
- Ekoizleen elkarteak
- Manipulatzailak eta/edo elaboratzaileak

Sartu atal bakoitzean eskatzen diren datuak:

- Eskaberaren datuak

Eskabideko datuak sartu ondoren, aldatu nahi duzun informazioa bete beharko duzu:

- Arduradun teknikoa.
- Ustategiaren/multzoaren/manipulazio-lokalen datuak.
- Erantzukizunpeko adierazpena: markatu egin behar duzu aurrera jarraitzeko.

### 3. Dokumentuak erantsia:

Eskatutako dokumentu motak edo bestelakoak sartu ahal izango dituzu, dagokion motan "erantsi"

sakatzuz  .

Ordezkaritza gisa jardunez gero, eta ordezkari-tza-ahalorde hori EAEko Ahalordetzaen Erregistroan inskribatuta ez badago, ez ahaztu ordezkari-tza-egiaztagiria eranstea.

4. Sinatu eta bidali:

Aurreko urratsetan jarri den informazioa erakusten da.

Sartutako datuak eta aurkeztutako dokumentuak zuzenak direla egiaztatu behar duzu. Baiezkoa bada, sakatu *sinatu eta bidali*.





### III. Erregistroan baja ematea (kodea: 0115203).

Izapide honen bidez, operadoreak ekoizpen integratuko erregistroan baja emateko eska dezake. 4 urrats daude: "identifikatu", "datuak bete", "dokumentuak erantsi", "sinatu eta bidali".

#### 1. Identifikatzea:

Bitarteko elektroniko baimendu baten bidez identifikatu behar da. Identifikatu ondoren, inprimakia hasten da:

"Datu pertsonalak" koadroan, hau adierazi beharko da:

- Espedientearen pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten badu: erregistroan baja emateko eskaera egiten duen pertsonaren ziurtagiri elektroniko batekin identifikatzen da. Datuak automatikoki aterako dira pantailan.
- Pertsona edo erakunde interesdunaren ordezkari gisa jarduten badu: baja-eskaera egin nahi duena ordezkatzeko duen pertsona gisa identifikatzen da. Kasu horretan, pantailan izapidea egiten ari denaren (ordezkariaren) datu pertsonalak agertuko dira, eta baja-eskaera egin nahi duen pertsona/erakunde ordezkatuaren datuak aurkeztu beharko ditu. Ordezkaritza behar bezala egiaztatu behar da dokumentazioaren bidez, eta justifikazio-dokumentua prozesua amaitzean erantsi beharko da (3. urratsean dokumentuak bildu). Ordezkaritza hori ohiko moduan erabiliko baduzu, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan alta ematea gomendatzen dizugu, hurrengo espedienteetan izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko baititu datuak.

Datu pertsonalak eta jakinarazpenekoak berretsi eta/edo bete behar dituzu.

#### 2. Datuak bete:

Atal bakoitzean eskatzen diren datuak sartu behar dituzu:

- Beste datu batzuk: adierazi bajaren arrazoia.
- Erantzukizunpeko adierazpena: markatu egin behar duzu aurrera jarraitzeko.

#### 3. Dokumentuak eranstea:

Nahi baduzu, dokumentuak sartu ahal izango dituzu "erantsi" sakatuta



Ordezkaritza gisa jardunez gero, eta ordezkari-ahalorde hori EAEko Ahalordetzeen Erregistroan inskribatuta ez badago, ez ahaztu ordezkari-egiaztagiria eranstea.

#### 4. Sinatu eta bidali:

Aurreko urratsetan jarri den informazioa erakusten da.

Sartutako datuak eta aurkeztutako dokumentuak zuzenak direla egiaztatu behar duzu. Baiezkioa bada, sakatu sinatu eta bidali.

#### IV. Erregistroaren ziurtagiria ematea (kodea: 0115204).

Izapide honen bidez, operadoreak ekoizpen integratuaren erregistroko inskripzio-ziurtagiria eska dezake. 4 urrats daude: "identifikatu", "datuak bete", "dokumentuak erantsi", "sinatu eta bidali".

##### 1. Identifikatzea:

Bitarteko elektroniko baimendu baten bidez identifikatu behar da. Identifikatu ondoren, inprimakia hasten da:

"Datu pertsonalak" koadroan, hau adierazi beharko da:

- espedientearen pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten badu: Ekoizpen integratuko ziurtagiria eskatzen duen pertsonaren ziurtagiri elektroniko batekin identifikatzen da. Datuak automatikoki aterako dira pantailan.
- pertsona edo erakunde interesdunaren ordezkari gisa jarduten badu: Ekoizpen integratuaren ziurtagiria eskatzen duena ordezkatzeko duen pertsona gisa identifikatzen da. Kasu horretan, pantailan izapidea egiten ari denaren (ordezkariaren) datu pertsonalak agertuko dira, eta ziurtagiria eskatzen duen pertsona/erakunde ordezkatuaren datuak aurkeztu beharko ditu.

Ordezkaritza behar bezala egiaztatu behar da dokumentazioaren bidez, eta justifikazio-dokumentua prozesua amaitzean erantsi beharko da (3. urratsean dokumentuak bildu).

Ordezkaritza hori ohiko moduan erabiliko baduzu, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan alta ematea gomendatzen dizugu, hurrengo espedienteetan izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko baititu datuak.

Datu pertsonalak eta jakinarazpenekoak berretsi eta/edo bete behar dituzu.

##### 2. Datuak bete:

Atal bakoitzean eskatzen diren datuak sartu behar dituzu:

- Eskeraren datuak: "Ziurtagiria egiteko eskatzen dut" laukitxoak markatu behar duzu
- Erantzukizunpeko adierazpena: markatu egin behar duzu aurrera jarraitzeko.

##### 3. Dokumentuak eranstea:

Nahi baduzu, dokumentuak sartu ahal izango dituzu "erantsi" sakatuta



Ordezkarari gisa jardunez gero, eta ordezkari-tza-ahalorde hori EAEko Ahalordetzeen Erregistroan inskribatuta ez badago, ez ahaztu ordezkari-tza-egiaztagiria eranstea.

##### 4. Sinatu eta bidali:

Aurreko urratsetan jarri den informazioa erakusten da.

Sartutako datuak eta aurkeztutako dokumentuak zuzenak direla egiaztatu behar duzu. Baiezkoa bada, sakatu sinatu eta bidali.